

# Topalekua

104 zk. 2020ko azaroa

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

## UPV/EHUko tituludunen Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa %78,9 da, ikasketak amaitu eta lau urtera

**Gizarte Kontseiluaren osoko bilkura urriaren 27an elkartu zen Bilbon, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) adierazle-sistema gizarteari kontuak emateko txostenaren 2020ko azken edizioa landu zuen, 2018-2019 ikasturteari dagokionez.**

Gizarte Kontseiluak urtero neurtzen du unibertsitate publikoaren gizarte-helburuen betetze-maila 2008az geroztik. Egresatuen laneratzeari dagokionez, bada txosten honetan lehen aldiz jaso den adierazle bat: hain zuzen ere, 2015ean UPV/EHU ikasketak amaitu eta lau urtera zenbat graduatu dauden Gizarte Segurantzara afiliatuta eta lanean alta emanda. Lortutako emaitza handituz doa urtetik urtera, eta, txostenak jasotzen duenaren arabera, kolektibo horretako %78,9 dago alta emanda 2018an. Portzentaje hori %71,6koa da Estatuko aurrez aurreko unibertsitate publiko guztietarako. UPV/EHUri dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa %46,8 izan zen 2015ean, %64,3koa 2016an, %74,8koa 2017an eta %78,9koa, azkenik, 2018an. Azken urte horretan, %79,4 gizonak dira eta %78,6 emakumeak.


Beheko grafikoa, jakintza-adarraren arabera daude jasota ikasketak amaitu eta lau urtera Gizarte Segurantzara afiliatuta dauden pertsonen ehunekoak. 2018 osoan, gauzatutako lan-jakintzaren %59,6 unibertsitate-mailakoa da, %18,1 erdi-mailako ikasketei dagokiena, ez-eskuzkoak, eta %22,3, azkenik, behe-mailakoa eta eskuzkoa. Osasun Zientziak dira unibertsitate-jakintzaren adarrik handiena: %90,3. Atzetik ditu Inge-

niarritza eta Arkitektura (%66,6), Zientziak (%63,3), Arteak eta Giza Zientziak (%58,6) eta Gizarte eta Lege Zientziak (%44,4).

2020ko azterlanak jasotzen duenez (2018-19 ikasturteko informazioa biltzen du, eta aurreko urtearekin eta serie historikoarekin alderatzen), unibertsitate publikoak aztertutako 20 adierazleetatik hamahirutan izan du hobekuntza. Hain justu ere, finantzaketa, trebakuntza, ingurune beharrianetara egokitzea, I+G+B ikerketa, nazioartekotzea, izen ona, hizkuntza-normalizazioa eta gizarte-erantzukizuna dira hobetutako alderdi horiek.

Txostenaren helburua UPV/EHUri eta haren epe luzeko bila-kaerari buruzko ikuspegia ematea da, erabakigarritzat jotako 20 adierazle baliatuta; horretaz gainera, eskuratutako emaitzei buruzko oinarriko xehetasunak eta gaineratutako balioa ematen ditu, gizarte-helburuak zenbateraino bete diren zehazten du, eta alderaketa egiten du ezaugarri antzekoak dituzten unibertsitateen adierazleekin. Txostenaren 2020ko edizio honetan, UPV/EHUren bilakaerari buruzko ondorioak ateratzeko datu fidagarriak eskaintzen dira erakundearen funtzionamendurako gako diren bederatzi alorretan.


### IKASKETAK AMAITU ETA LAU URTERA GIZARTE SEGURANTZARA AFILIATURIKO EGRESATUEN KOTIZAZIO-TALDEA, JAKINTZA-ADARREN ARABERA. 2018



(1. orritik dator)

**ERRENDIMENDU-TASA UPV/EHU-ko GRADU-TITULAZIOETAN, JAKINTZA-ADARRAREN ARABERA.** 2017/18 - 2018/19 ikasturteak

Iturria: UPV/EHU



**Txostenaren ondorio nagusien artean,** honako hauek nabarmendu daitezke, gainera:

- **Prestakuntzaren arloko emaitzen adierazleek** modu positiboan jokatu dute azken urtean. Gradu ikasketen errendimendu- eta arrakasta-tasak (%78,1 eta %88,3, hurrenez hurren) zertxobait hobetu dira, eta lehen kursoan ikasketak utzi dituztenen tasa, berriz, (%15,9) ez da aldatu. Ikus goiko grafikoa, gradu titulazioen errendimendutasari buruzkoa, ikasketa esparruaren arabera. Enpresetan borondatezko praktikak egiteko tasari dagokionez (%13,1 izan zen 2018an), nolabaiteko atzerakada gertatu da.
- UPV/EHUK **master-ikasketetan** duen estaldura-tasak goranzko joerari eusten dio: %65,1ekoa izan da 2019-20 aldirian, eta nabarmen hobetu da aurreko ikasturteetan ikusitako datuekin alderatuta. Matrikulazioari dagokionez, 2015-16 ikasturtean 3.097 izatetik 2019-20 ikasturtean 3.488 izatera igaro da. Hala ere, **gradu titulazioek** beheranzko bidean jarraitzen dute, eta %73,8ko estaldura-tasa izan dute 2019-20 ikasturtean. Matrikulazioa 37.087 izatetik (2015-16) 35.978 izatera (2019-20) igaro da.
- Finantzetaren eta gastuen esparruan, nabarmen-tzekoa da unibertsitate-jardueraren finantzetamaila handiari eutsi zaiola **sektore publikotik datozen transferentzia arrunten bidez** (%85,3 izan ziren 2018an), nahiz eta azken urteetan beheranzko bilakaera izan duen. **Ikasle bakoitzeko gastu arruntari dagokionez**, adierazle horrek 10.340 euroko balioa lortu du UPV/EHU 2017-18an, Espainiako unibertsitate-sistema publiko osoaren batezbesteko gisa hautemandako 7.252 euroak baino nabarmen handiagoa.
- **STEM diziplinetako** (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) matrikulazio bilakaeraren azterketak erakusten du ikasketa horien eskaera mugatua dela, laneratze-maila ona eta horri lotutako lan-baldintzak gora-behera. UPV/EHU, %25 izan da 2019-20 ikasturtean. Oraindik ere txikia da diziplina horietan dauden emakumeen proportzioa –zehazki %28koa–, gradu ikasketetan dauden emakumeen %55 orokorra baino askoz apalagoa.
- **Irakasleen ekoizpen zientifikoari eta doktoretasiei dagokionez**, emaitzek bilakaera oso ona izan dute, eta horrek erakusten du UPV/EHUK posizionamendu ona duela.

- **Ikerketaren, berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren esparruan**, UPV/EHUK bilakaera oso ona izan du. Azken urtean lortutako adierazleen arabera, nabarmen egin du gora zuzeneko kontrataziotik eratorritako diru-sarreraren bolumenak eta pisu erlatiboak I+G+Bko funtsen gainean 2019an (%23 izan da, eta 2018an, berriz, %15), bai eta patente-eskaeren zifran ere (80 izan ziren 2019an, eta 2018an, aldiz, 62).
- **Kalitateari eta prestigioari dagokionez**, handia da Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Agentzia Nazionalaren akreditazioa berritu duten tituluen proportzioa, eta, aurreko urtearekin alderatuta, hobetu egin da ratioa.
- **Hizkuntza-normalizazioarekin lingüística**, lotutako adierazleari dagokionez, ugaritu egin da graduatan euskaraz eskainitako nahitaezko kredituen ehunekoa, eta orain artean ikusitako kopuru maximoa lortu da (%85,3 izan da 2019/2020 ikasturtean). Azken ikasturtean, halaber, ugaritu egin da euskaraz matrikulatu diren ikasle berrien kopurua (%54,2).

**2019ko ekitaldiko kontuak onartu dira**

Gizarte Kontseiluak, urrian egindako saio berean, UPV/EHUren 2019ko kontabilitateko egoera-orriak onartu zituen; ekitaldi horretan, 422 milioi euroko aurrekontua izan zen hasieran, eta zenbateko hori 517 milioira iritsi zen (aurreko ekitaldietako geldikina gehituta). Unibertsitateak 437 milioi egikaritu zituen aurrekontu hartatik. Kontseiluaren osoko bilkurak, halaber, gehiengodun partaidetza duen entitateetako kontabilitateko egoera-orriak onartu zituen akordio berean. Hain zuzen ere, honako hauek dira: Euskoiker, UPV/EHUren Udako Ikastaroak, eta Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa.


Osoko bilkurak, era berean, ordainsarien osagarri gehigarrietarako deialdia onetsi du, UPV/EHUko irakasle eta ikerlariak irakaskuntzako eta ikerketako merezimenduak aitortzen dituzten osagarriak eskatu ahal izan dituzten. Beste gai batzuen artean, Gizarte Kontseiluak azken bi deialdietako A eta B mailetako ordainsari-osagarriak ere esleitu zituen. Gainera, gastu arruntaren hainbat aurrekontu-aldaketa onetsi zituen, irakaskuntzako ekipamendua eta bitarteko informatikoak eskuratzera bideratutako inbertsioetarako.

**ADECCO ENPLEGU TXOSTENA. 23. EDIZIOA**

BOSGARREN URTEZ JARRAIAN, ETA MADRILGO AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ETA KATALUNIAREN ATZETIK

# Euskal Autonomia Erkidegoak hirugarren posizioan jarraitzen du enplegu-eskaintzaren banaketa nazionalako zerrendan

**Eskaintzen % 11,28rekin, Euskal Autonomia Erkidegoak hirugarren postua lortu du laugarren urtez jarraian enplegu-eskaintzaren banaketa nazionalako zerrendan; aurretik ditu Madril (%25,98) eta Katalunia (%23,05). Hiru autonomia-erkidego horiek jarraitzen dute lanpostuak sortzeko gaitasun handiena izaten, Adeccoren azken enplegu-txostenaren arabera.**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE BANAKETA**

Iturria: Adecco enplegu txostena. 23. edizioa

Adeccoren enplegu txostenaren 23. edizioak 2019ko datuak biltzen ditu, eta zehatz-mehatz azaltzen du zer bilakaera izan duen enplegu-eskaintzak Espainian azken urtean eta zein izan diren enpresen eta hautagaien kezka nagusiak talentua eta enplegua bilatzeko orduan, hurrenez hurren.

Lan-eskaintza nazionalaren arabera, zortzi urtean lehen aldiz, Madrilak eta Kataluniak murriztu egin dute pisu erlatiboa, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Andaluziaren mesedetan. Lau erkidegoon artean, 2019an Espainian sortutako hamar lan-eskaintzatik zazpi banatzen dira. Gainerako hamahiru erkidegoek –baita Ceutak eta Melillak ere– «gero eta desoreka handiagoa» dute, eta agerian geratzen da zabal-tzen jarraitzen dutela «hustutako Espainiaren mugek».

**Madrilak eta Kataluniak pisua galdu dute**

Adeccoren azken txostenaren arabera, Espainiako lau lan-eskaintzatatik bat Madrilgo Erkidegoan sortzen da. Autonomia-erkidego hori da buru berriro ere lan-eskaintzak banatzeko rankingean, hantxe biltzen baita eskaintza guztien %26. Datu hori oso positiboa da erkidego harentzat, baina esan nahi du ekarpena ehuneko puntu bat murriztu duela. Kataluniak jarraitzen dio oso gertutik, aurreko ekitaldiarekin alderatuta puntu eta erdi murriztu baitu ekarpena; hala, eskaintza nazionalaren %23,05 egiten da bertan.

Euskal Autonomia Erkidegoa rankingaren hirugarren postuan ageri da, eta zazpi hamarren hobetu du parte-hartzea 2019an, %11,28ra iritsiz. Laugarren postuan Andaluzia dago, %8,57rekin (postu berean jarraitzen du), eta hark izan du urteko ehuneko igoerarik handiena, puntu eta erdi handitu baitu eskaintzaren bolumena.

Probintzien arteko banaketari dagokionez, taularen goialdeko posizioek aldaezin jarraitzen dute: Madril (%26), Bartzelona (%20,1), Bizkaia (%5,1), Valentzia (%4) eta Gipuzkoa (%4). Lehendabiziko bosten ondotik dator Zaragoza (%2,9), zeinak 2019an seigarren postua kendu baitio Malagari (%2,5).

**Euskadiko lurraldeen arteko banaketa**

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-banaketari dagokionez (ikus goiko grafikoa), Bizkaiak du oraindik ere protagonismo handiena, eskari osoaren %45,42 biltzen baitu. 2019an bost hamarren irabazi zituen, Gipuzkoaren (%35,27) eta Arabaren (%19,31) kaltetan.

Sektorekako banaketari dagokionez, eta Euskadiko eragile nagusia izaten jarraitu arren, beste industria-jarduera batzuek ere garrantzia galdu dute, enplegu-eskaintzaren %12,96 eskuratu baitute, ia bi puntu gutxiago aurreko urtearekin alderatuta. Atzetik dituzte industria metalurgikoa, siderurgikoa eta mineralurgikoa, zeinak bigarren postura igo baitira, %9,99 eskuratuz. Ondoren datoz ostalaritza eta turismoa (%8,19), txikizkako merkataritza (%6,43) eta automobilgintza (%5,68).

Txikizkako merkataritzak izan du galera handiena enplegu-eskaintza sortzeko gaitasunean: 2018an %9,20 izatetik 2019an %6,43 izatera igaro da. Adeccoren txostenaren arabera, 2019an hauek izan dira Euskadin gehien eskatu diren lanpostuak: langileak (%4,63), langile espezializatuak (%3,40), komertzialak (%2,91), bitlegiko langileak (%2,83) eta mantentze-lanetako teknikariak (%2,45).

(4. orrietan jarraitzen du)

**ADECCO ENPLEGU TXOSTENA. 23. EDIZIOA**

(3. orritik dator)

**Enpresa Administrazioa eta Ingeniaritzak, gehien eskaturiko karrerak**

Adeccoren txostenaren arabera, honako hauek izan ziren 2019an lan-eskaintza gehien jaso zituzten bost unibertsitate-titulua, hurrenkera honetantxe: Enpresen Administrazioa eta Zuzenbidea (%3,53), Industria Ingeniaritza (%3,35), Ingeniaritza Mekanikoa (%1,79), Informatika Ingeniaritza (%1,41) eta Enpresen Administrazioa eta Zuzenbidea (%1,24).

Besteak beste, Merkataritza eta Marketinak jaso zuen lan-eskaintzen %0,91, eta atzetik ditu Erizaintza (%0,83), Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak (%0,82), Medikuntza eta Biomedikuntza (%0,44), Arkitektura (%0,42), Zuzenbidea (%0,35) eta Ostalaritza eta Turismoa (%0,30). Ehuneko horretatik behera ageri dira Psikologia eta Psikopedagogia (eskaintzen %0,23), Hezkuntza eta Pedagogia (%0,19), Fisioterapia (%0,17) eta Komunikazioa, Irudia eta Soinua (%0,16), besteak beste.

**Eskatutako prestakuntza-maila eta lanbide-kategoriak**

Euskal Autonomia Erkidegoan 2019an izaniko lan-eskaintzen %42,31n eskatu ziren unibertsitate-tituludunak, eta aurreko urtean, berriz, eskaintzen %39,21ean. Joera goranzkoa da, argi eta garbi. Atzetik ageri dira Goi Mailako Heziketa Zikloak (%29,68), Erdi-mailako Heziketa-Zikloak (%14,72), Batxilergoa, BBB eta/edo UBI (%5,60) eta DBH eta/edo Eskola Graduatua (%5,45). Masterra eta/edo graduondokoa eskatzen duten enplegu-eskaintzak %2,25 dira, eta 2018an, berriz, %0,95 izan ziren.

Lanbide-kategoriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eskatutako lanpostuen %40,33 enplegatu-lanpostuak dira, %39,59 teknikari-postuak, %17 erdi-mailako agintari-postuak eta gainerako %3,08, berriz, zuzendaritza-karguak.

**UNIBERTSITATE-TITULUDUNENTZAKO ENPLEGU-ESKAINTZAK**

Unibertsitate-titulazioa	Euskadi 2019		Euskadi 2018		Espainia 2019	
	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %	Enplegu-eskaintza guztien gaineko %	Unibertsitate-tituludunentzako enplegu-eskaintzen gaineko %
Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza	3,53	8,35	3,22	8,21	4,10	9,00
Industria-ingeniariaritza	3,35	7,92	3,94	10,06	1,80	3,95
Ingeniaritza Mekanikoa	1,79	4,24	1,51	3,86	0,79	1,94
Ingeniaritza Informatikoa	1,41	3,34	1,36	3,46	1,47	4,09
Enpresa Administrazioa eta Zuzenbidea	1,24	2,93	0,66	1,69	1,38	2,49
Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatikoa	1,23	2,91	1,67	4,26	0,68	1,77
Merkataritza eta Marketina	0,91	2,15	0,73	1,87	1,05	2,24
Industria Antolaketako Ingeniaritza	0,85	2,01	0,83	2,11	0,32	0,60
Erizaintza	0,83	1,96	0,57	1,45	0,95	1,97
Lanaren Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak	0,82	1,94	0,44	1,13	1,27	2,52
Ingeniaritza Elektrikoa	0,76	1,79	0,78	1,99	0,53	1,12
Ingeniaritza Elektromekanikoa	0,64	1,50	0,39	1,01	0,56	0,98
Telekomunikazioetako Ingeniaritza	0,49	1,16	0,52	1,33	0,47	1,56
Ekonomia	0,49	1,15	0,28	0,70	0,81	1,83
Medikuntza eta Biomedikuntza	0,44	1,04	0,51	1,31	0,63	2,09
Arkitektura	0,42	0,99	0,24	0,60	0,48	0,88
Zuzenbidea	0,35	0,83	0,24	0,60	0,71	1,20
Industria Diseinuko Ingeniaritza	0,31	0,73	0,29	0,74	0,26	0,53
Ingeniaritza Zibila	0,30	0,70	0,28	0,70	0,22	0,45
Ostalaritza eta Turismoa	0,30	0,70	0,50	1,29	0,40	1,42
Psikologia eta Pedagogia	0,23	0,55	0,33	0,84	0,40	1,23
Publizitatea eta Harreman Publikoak	0,23	0,55	0,24	0,60	0,25	0,44
Hezkuntza eta Pedagogia	0,19	0,45	0,21	0,52	0,35	0,78
Fisioterapia	0,17	0,40	0,13	0,32	0,28	0,77
Romunikazioa, Irudia eta Soinua	0,16	0,38	0,11	0,28	0,13	0,31
Unibertsitate-titulazioa espezifikatu gabe	18,68	44,16	16,49	42,06	14,53	44,39
Bestelako titulazioak	2,19	5,17	2,74	7,00	4,01	9,47